

## ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA

### Sarrera

Indarrean dagoen trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legeak udalei eskumena ematen die beren titulartasuneko hiri-bideetan trafikoa ordenatu eta kontrolatzeko, eta baita udaltzainen bidez zaintzeko, bide horietako arau-hausteak salatzen eta zigorrak ezartzeko ere eskumena berariaz beste administrazio bati ematen ez dionean.

Legea, berau garatzeko erregelamendua eta trafiko arloan dagoen gainerako araudia nahiko zehaztuta daude Udalak zuzenean aplikatzeko. Halaz ere, logikoa den bezala, udalerrri bakoitzeko hiri-bideen sarearen berezitasuna dela medio ezinezkoa da legeria orokorra Udalen behar eta arazo guztietara egokitzea eta horiei guztiei erantzun bat ematea.

Horregatik, trafiko legeriak berak, abenduaren 19ko 19/2001 Legearen araberrako Erreformatik emandako idazkeran, Udalei, beste eskumenen artean, udal ordenantza bidez hiri-bideen erabilerak arautzeko ahalmena ematen die, eta aparkaldi mugatuko neurriak ezartzeko ere bai (7b artikulua).

Udalak jada neurri batean erabili zuen eskumen horietako bigarrena, 1997ko uztailaren 29ko oso bilkuran horretarako onartu zuen ordenantzaren bidez (GAO zk. 150, 1997ko abuztuaren 11koa). Oraingo honetan, Zarauzko udalerriri berezko arau batzuk ezarri nahi zaizkio, Legearen esparru orokorrean ezarritakoen osagarriak, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko xedez.

### **1. artikulua.- Xedea eta aplikazio-eremua**

Ordenantza hau, Udalei trafiko eta zirkulazio gaietan legez ematen zaizkien eskumenen indarrez ematen da. Zarauzko hiri-bideetako zirkulazioarekin eta horien erabilerarekin zerikusi duten alderdi batzuk arautzea du helburu, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko

arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko xedez.

## **2. artikulua.- Trafikoa antolatze eta hiri-bideak seinaleztatzeko neurriak**

1.- Hiri-bideen titularra den aldetik, Udalak trafikoa antolatze bidezko irizten dituen neurriak hartuko ditu, eta zirkulazio-seinale eta bide-marka egokiak jarri eta zainduko ditu, ezarrita dagoen formatu ofizialaren arabera.

2.- Udalaren barruan, alkatetza da trafikoa arautzeko neurri iraunkorrak erabakitzeko eta bidezko zirkulazio-seinaleak jartzeko organo eskuduna, ordenantza bidez edo hirigintza-ordenazioko tresna baten determinazioen barnean arautu beharreko gaietan udalbatzarrak duen eskumenari utzi gabe.

Erabakiak arrazoituta hartuko dira; udal hirigintzako planeamenduan eta gainerako udal ordenantzetan bide-sareari buruz jasotako araudia eta determinazioak bete behar dituzte, eta horiekin behar bezalako koordinazioa gordeko dute.

3.- Beharrezko den aldikotasunaz, udaltzaingoak udal titulartasuneko hiri-bideetako trafikoari buruzko Txosten bat igorriko dio Alkatezari.

Txosten horretan honako gaiei buruzko erreferentziak eta proposamenak jasoko dira: abiadura-mugak, ibilgailuen zirkulazioa, oinezkoentzako guneak, aparkalekua, zamalanak, garraio publikorako geralekuak, eta trafikoaren antolamenduarekin lotutako beste batzuk. Dagokien udal informazio-batzordeak txostenean jasotako proposamenak eztabaidatu eta beharrezko diren txostenak jaso eta gero, Alkateak onartuko du eta trafikoa arautzeko gaietan edozein akordio hartzeko oinarrizko erreferentzia izango da.

4.- Alkateak bere eskurantzen erabilera eskuordetu ahal izango du, aplikatu beharreko legeriaren arabera.

5.- Udaltzaingoko udaltzainek zirkulazioaren ordenamendua eta ezarritako seinaleak aldi jakin baterako aldatu ahal izango dituzte. Horretarako, bat-bateko gertakizunengatik behar diren seinaleak jarri edo kendu ahal izango ditu eta beharrezko neurriak hartuko ditu ibilgailuen nahiz pertsonen zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna lortzearren.

### **3. artikulua.- Lehenetasuneko bideak.**

1.- Lehenetasuneko hiri-bideak honako hauek dira: beren ibilbidea, kokalekua eta beste bideekin duten lotura dela-eta udalerriko oinarrizko bide-sarea osatzen dutenak eta oro har trafikoa banatzeko ezinbestekoak direnak; eta oinarrizko bide-sarearen izaera lortzera iritsi gabe, neurri eta ezaugarri jakin batzuk izanik, ibilgailu motordun gehientsuen zirkulaziorako egokiak diren bideak.

2.- Orientagarri gisa, ondokoak hartzen dira lehenetasuneko hiri-bidetzat:

- Gipuzkoa, (Gaztainperen bidegurutzetik Nafarroa kalearen elkarguneraino)
- Nafarroa
- Araba
- San Inazio
- Bizkaia (San Inazio eta Urdaneta kaleen artean)
- Urdaneta
- Zubiaurrezahar
- M<sup>a</sup> Etxetxiki
- Oro har, baldintza hauek betetzen dituztenak: gutxienez 6 m-ko zabalerako zirkulazio-erreila edo erreilak; bihurgune biribiletan gutxienez 25 m-ko erradioa; bidegurutzetan gutxienez ere 9 m-ko barne-erradioa; galtzadatik etxe edo eraikuntza hurbilenera gutxienez 2 m-ko tartea.

3.- Udalak lehenetasuneko hiri-bideen katalogo zehatz eta eguneratua edukiko du. Alkatetza da, arrazoibidez, katalogoan sartutako lehenetasuneko bideak aldatu, zabaldu edo gutxiagotzeko organo eskuduna.

### **4. artikulua.- zirkulatzeko mugak eta baimen bereziak ibilgailu jakin batzuentzat.**

1.- Oro har, lehenetasuneko hiri-bideetan ibilgailuen zirkulazioak indarrean dagoen legeditik, Udalak trafikoa antolatzeko onartutako neurrietatik eta horretarako jarritako zirkulazio-seinaleetatik eratorritako murrizketak baino ez ditu izango.

2.- Gainerako hiri-bideetan debekatuta dago, baimen berezia izan ezik, ondoko pisuak edo neurriak gainditzen dituzten ibilgailuen zirkulazioa:

- Oro har, 5.000 kg-tik beherako pisu edo masa baimendua, edo 7 m-ko luzera, 2,5 m-ko zabalera eta 3,5 m-ko altuerako neurriak.
- Zigordia, Salegi, Ipar, Santa Marina, Herrikobarra eta San Frantzisko kaleetan, eta dituzten ezaugarriengatik Udalak talde honetan sartzen dituen kaleetan, 3.500 kg-tik gorako pisu edo masa baimendua gainditzen duten edo 5 m-ko luzerako neurria gainditzen duten haiek.

Gehieneko pisu baimendua, ibilgailu baten zirkulazio normalerako baimentzen den handieneko pisu osoa da. Bide hauetan seinale egokiak jarriko dira, gidariei aipatutako arau murriztaileak jakinaraziz.

#### **Artículo 5.- Lehentasunekoak ez diren bideetan zirkulatzeko baimen bereziak.**

1.- Aurreko artikuluan zehaztutako ezaugarriak dituen ibilgailu batek lehentasunekoa ez den hiri-bide batetik zirkulatu ahal izateko baimen berezi bat izan behar du, iraunkorra edo aldi baterakoa. Alkatetzak emango du baimen hori, ibilgailuaren ezaugarriak, komunikazioak, kokalekua, egitekoak edo bestelako gorabeherak aztertu ondoren.

2.- Baimen berezi bat ematen denean ibilgailuaren gidariak, udaltzaingoaren laguntzaz, neurri egokiak hartuko ditu bide publikoetako gainerako erabiltzaileei arrisku edo kalterik ez sortzeko. Edozein kasutan ere, baimenaren titularrak izango da salbuespenez baimendutako zirkulazioaren ondoriozko kalte-galeren erantzulea.

3.- Ematen diren baimen berezietan, gutxienez ere ondokoa jaso behar da:

- Balio-epea.
- Ibilgailuak egin beharreko ibilbide zehatza.
- Hartu beharreko segurtasun-neurriak.
- Zirkulatzeko, maniobrak egiteko edo aparkatzeko ordutegia.
- Bide publikoaren segurtasuna bermatzeko beharrezko diren ohar guztiak.
- Hala badagokio, obrak edo bestelako gertakizunak direla-eta galtzada okupatzeko eta aldi baterako ixteko baimen bereziengatik ordaindu beharreko tasa, Udaleko ordenantza fiskaletan ezartzen denaren arabera.

4.- Murriztapen hauetatik salbuetsita daude garraio-zerbitzu publiko desberdinetako ibilgailuak, udalerrri barruan linea erregularra edo geralekua baimenduta badute.

#### **6. artikulua.- Baimendutako gehienezko abiadura-muga.**

Oro har Zarauzko udalerriko hiri-titulartasuneko bideetan debekatuta dago 40 km/h-tik gorako abiadura zirkulatzea, kasu bakoitzerako ezartzen diren muga espezifikoek kalterik egin gabe.

#### **7. artikulua.- Ibilgailuak aparkatzeko muga espezifikoak.**

1.- Udal ordenantza bidez arautuko da udalerriko leku jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzeko denbora-muga.

2.- Debekatuta dago bide publikoetan ibilgailu motordunetatik bereizitako mota guztietako atoi eta erdi-atourik aparkatzea; bai eta ibilgailu artikulaturik, kamioirik, autobusik, traktorarik, edo obra, zerbitzu eta nekazaritzarako ibilgailurik ere, eta oro har 3.500 kg-tik gorako pisu edo masa baimendua duen edozein ibilgailurik, edota zabalera nahiz luzerako neurrietan aparkalekuetarako gordetako perimetroa gainditzen duen ibilgailurik.

Ibilgailu horiek horretarako baimendutako toki eta aldietan bakarrik aparkatu ahal izango dute, edo baimendutako ordutegian zamalanak egiteko.

3.- Onartuta dago autokarabanak bide publikoetan aparkatzea 3.500 kg-tik beherako pisu edo masa baimendua badute, baina ezingo dira inoiz ere bertan bizi, ostatu hartu edo akanpatzeko erabili.

4.- Debekatuta dago espaloietan eta oinezkoentzako kale-guneetan ziklomotoreak eta motorrak aparkatzea.

Galtzadan, baterian edo erdi-baterian aparkatuko da, gehienez ere 1,50 metroko zabalera okupatuz.

## **8. artikulua.- Zamalanak.**

1.- Udalak zamalanetarako izendatu eta egokitzen dituen guneak, espreski salgaien garraioan diharduten ibilgailuek bakarrik erabili ahal izango dituzte, eta lan horiek egiteko helburupean soilik.

Dena den, zamalanak egiterakoan aparkatzeko arauak beteko dira, bide publikoko gainerako erabiltzaileentzat arrisku edo kalterik sortu gabe.

2.- Leku seinaleztatuetan ezarritako ordutegiari kalterik egin gabe, ezingo da zamalanik egin goizeko 8:00ak baino lehen ez eta arratseko 20:00ak ondoren ere, salbuespeneko kausengatik baimenduta izan ezik.

Edozein kasutan, debekatuta dago zamalanik egitea larunbatetan 13:00az geroztik eta igande eta jaiegunetan egun osoan.

## **9. artikulua.- Salgai arriskutsuen garraioa**

1.- Zarauzko udalerriko hiri-bideetan debekatuta dago, baimen berezia izan ezik, arlo honi buruzko araudi espezifikoa jasotzen diren definizioen arabera arriskutsutzat jotzen diren salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuen zirkulazioa.

2.- Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, horretarako Zarauzko hiri-bideetako tarteunerik erabili behar izanez gero, estatuko edo erkidegoko organo eskudunen baimenez gain, udal baimen berezi bat eskatu behar dute.

Eskaeran, udal hiri-bidea erabiltzeko premia justifikatu behar dute. Alkatetzak emango duen baimenean honakoa jasoko da: egutegia, ordutegia, ibilbidea, laguntzaren beharra, behar izanez gero, eta oro har zirkulazio araudiaren arabera jasotzea komeni diren gainerako gorabehera espezifikoak.

## **10. artikulua- Arau-hausteak eta zehapenak**

1.- Ordenantza honen kontrako ekintza edo hutsegite guztiak administrazioko arau-hausteak izango dira, eta zigorrak ezarriko zaizkie trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide-segurtasun arloan une oro indarrean dagoen araudian jasotako arau-hauste eta zigor araubidearen eta zigortzeko prozeduraren arabera, udalerriei emandako eskumenekin bat etorriz.

2.- Arau-haustek arintzat hartuko dira, lege edo arau bidez espreski larritzat edo oso larritzat hartu behar ez badira.

**Azken xedapena.**

Ordenantza hau, Udalak behin-betiko onartu eta gero, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunetara jarriko da indarrean.

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 2003ko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2003ko azaroaren 27an  
Idazkaria

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko Ordenantza hau, behin-betiko izaeraz, 2004ko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2004ko otsailaren 26an  
Idazkaria

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko, Ordenantza hau Probintziako Aldizkari Ofizialean 2004ko martxoaren 5ean (zk. 44) argitaratu zela.

Zarautzen, 2004ko martxoaren 8an  
Idazkaria